

SAN ANTON ALA ENDARA?

Emen eta non-nahi, leku-izenak kultura ondare dira, arkeologia, historia eta hizkuntzaren aztergai diren aldetik, non zer zen jakiteko.

Gai hontan Irungo Udala apenaz ohartu da bertako administrazioetik hasi eta edonongo agiri eta kazetaritzan San Anton baizik ez dela erabiltzen hirirako urpresaren izenez, jatorragoa edo zaharragoa den Endara baztertuz. Badakit baztertze hortan ez dela izan bestelao intentziorik. Inoren asmorik gabekoa izan dela esango nuke. Baina, oraindik denboraz gaude leku hari degokiona itzultzeko.

Salbuespenen bat ezik, toponimoak hagianimoak baino zaharragoak izan ohi dira; baina, maiz, debozio eta erromes eraginak, izan zaharra gainditzen du. Lege naturala da hori ere, baina hiri eta kale izenetan neurritz harat gabiltzan garaian ongi legoke Irungo hirira urak ekartzetik geroago eta gehiago erabili beharko den tokiari era jatorrez deitzen hastea. Gainera, oso oker ez banago, urpresak hartzen duen alderdi bata Lesaka parte da eta haiek eskubiderik ez balute bezala jokatu da izenaren erabileraz.


Endara-erreka bezala ezagutzen da Nafarroa eta Gipuzkoa zatitzen dituen erreka, Endara lurraldea ordea Aginatik Aritxulegi lepora eta Biandizko lepotik Endarlasara.

Endarlasa (s-kin, z-kin baino jatorrago dena), Endara-erreka bezala da, euskaraz erreka izen baharra las(a) zenez. Oraindik ere Ifarekaldean hala erabiltzen dena eta euskaldun deituran zein leku-izenetan Euskal Herri osoan agertzen dena. Hori debori, Endara toponimoaren zahartasun adierazgarri da.

Gaur egun, Endara izena, galtzeko zorian dago, baldin Irungo Udalak izen jator horren alde erabakirik hartzen ez badu.

Agiri zaharren arabera, **Endara** portu edo «puerto de Endara» 1365. urtean aipatzen da, Nafarroako errege Karlos II.ak gipuzkoar ordezkariekin bakeak egitera heldu zenean. Hirurogetahamabost urte lehenago Gaztelako errege Alfonso VIII.ak itsasorako irtera moztu zionetik akordiozko «tregua» hortara iritsi zireneko agiria da (Hala gordetzen denez Archivo General de Navarra delako **Cámara de Comptos**-ean, caj. 20, N.º 81, erreferentziatzen).

Hori dugu Endaraz orain arte ezagutzen dugun agiririk zaharrena. Aldiz, **San Anton** ermitaren berririk ez zaigu agertzen 1567ra arte. Ziurki, urte hortarako ba omen zen (ikus 3. Caro Barojaren «Monumentos religiosos de Lesaka», **Anuario de «Eusko-Folklore»**, 1932, XII, 52. orrialdea).



Endarako San Anton ermitaren solairua. J. Caro Barojak jasoa eta 1932.ean **Anuario de «Eusko-Folklore»** urtekarian argitaratua.

Inguru horretan, toponimo eta hagianizmoaz gainera hidronimoa biltzen zaigu, denborak zehar bien bitarteko izan ditekena, **Endaralas**, bertako ola zaharrak aipatzean, XIV-XVI. mendeetan (ikus L. M. Díez de Salazar, **Ferrerías en Guipúzcoa**, Vol. 2, p. 344). Horren laburpena da Endarlasa.

Hara hor, **Endara** leku-izena, **Endaralas** erreka izena eta **San Anton** bertako ermitarena. Holakoetan toponimoa litzake aukerakoena, eta deboziozkoa gorde nahi bada, biak elkarri loturik. Azken batean hori ere historia bai da. Horregatik, **Endara** hutsik ezin bada, **San Antón de Endara** (edo **Endarako San Anton**).

Hondarribian bada baserri bat Endanea deritzana. 1787ko zentsoan Endaranea bezala agertzen dena eta 1857ko Nomenklatorrean Endarenea. Endaratik hara joandakoren batek eraikia noski; baina Bidasoaz handik Hendaia hiri izenak zer pentsa ematen digu. Aintzinako eskualde zabalago baten izenean sustraitzen ote dira horiek? Oraingoz hala uz ditzagun ikergai. Baina ikerketari lagundu dezaigun erarik jatorrenak irauaraziz.

Juan San Martín